

GIPUZKOAKO NATUR KONTSERBAZIOA: BIOANIZTASUNA

Berdeak

Eguzki

Ekologistak Martxan

Erkaxo Azpeitiako Natur Taldea

Haritzalde

Itsas Enara Ornitologi Elkarte

Landarlan Natur Elkarte

Mutriku Natur taldea

Okil Beltza, Elgoibarko Natur Taldea

Osina Natur Taldea

Ugatza Ornitologi Elkarte

Katamarrua, Zestoako Natur Taldea

Zumaia Natur Taldea

Herrio Natur Taldea

Arkamurka Natur Elkarte

Ondarroa 12 milia

Donostia, 2012ko abenduaren 12an

AURKIBIDEA

1. Aurrekariak	3. or.
1.1 Zergatik eta zertarako gure eskaera?	4. or
1.2 Gure eskaera	5. or
2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenak Bioaniztasunaren kontserbazioaren arloan	6. or.
2.1 Foru Aldundiaren betebeharrak	7. or.
3. Gipuzkoako bioaniztasunaren kontserbazioarekiko gure diagnostikoa	10. or.
3.1 Natur gune babestuak	10. or.
3.1.1. Itsasoko natur sarea noizko?	10. or.
3.1.2 Biotopo babestuak	12.or.
3.1.3 Zuhaitz apartekoak	14. or.
3.2 HEZEGUNEAK. Ramsar nazioarteko garrantziko hezeguneak eta Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana	15. or
3.3 Natura 2000 sarea	16.or.
3.3.1. KBE-ak eta BGI-ak	17. or.
3.3.2 Interes europarreko habitatak	18. or.
3.3.3. Itsasoko natur sarea noizko?	19. or.
3.4 Babestutako espezieak	21. or.
3.4.1. Espezie arrotz inbaditzaileak	23. or.
4. Gure proposamenak	25. or.
4.1 Kontserbazioari eta berreskuratzeari begira jartzea	
4.2 Arlo hau kudeatzeko Foru Aldundiak beharko lukeen egitura	
4.3 Lurralde antolaketa: babestutako eta babestu gabeko eremuak	
4.4 Babestutako espezieak eta espezie arrotz inbaditzaileak	
5. Gure eskaeren KRONOGRAMA	28. or.

1. AURREKARIAK

Iaz hasita, Gipuzkoako Natur Taldeok lurralde honetako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismo departamentuko ordezkariekin natur kontserbazioarekin erlazionatutako hainbat gairen inguruan hitz egiteko konpromisoa hartu genuen.

Gaurdaino lau dira egin ditugun bilerak: gure eskakizunak jakinarazteko urtarrilean ospatutakoa, lehena; Gipuzkoako basoetarako laguntza-arauak ezartzen dituen Dekretuaz hitz egiteko, otsailean ospatutakoa, bigarrena; hirugarrena, ehizaren kudeaketaz aritzeko ekainean ospatutakoa; eta, laugarrena, Gipuzkoako basoen berreskurapena eskatzeko egin genuena.

Hasitako bidearekin jarraitzeko, Gipuzkoako bioaniztasunaren kontserbazioaz hitz egiteko proposatu nahi dugu hurrengo bilera. Horretarako, idatzi hau sinatzen dugun natur taldeen ordezkariok Gipuzkoako bioaniztasunaren kontserbazio-politikarekiko gure ikuspegia eta eskakizunak jasotzen dituen txostentxoan idatzi dugu, esku artean duzun hauxe, hain zuzen.

Txosten honen xedea da, beraz, Foru Aldundiko Landa Garapeneko zuzendariari eta sail horretako teknikariei jakinaraztea zeintzuk diren gure irizpideak kudeaketa-eredua aldatzeko, Gipuzkoako bioaniztasunaren kontserbazioa edota berreskurapena helburu direlarik.

Era berean, klima aldaketa eta bioaniztasunaren galera-maila dira mundu mailan eta Europan dauden ingurumen-arazo nagusiak. Ondorioz, teorian, horiek dira ingurumen-politika publikoen helburu nagusiak, nahiz eta errealitatean horrela ez izan.

Euskal Herriko artifizializazioa areagotu egin da ikaragarri azkeneko hamarkadetan. Ondorio hauek Gipuzkoan eta Bizkaian izan dute eragin handiena, eta horrek bioaniztasunean eragin du bete-betean: habitat naturalen fragmentazioa, urritasuna, isolamendua eta sinplifikazioa; eta basa-espezieen populazioen urritasuna eta desagerpena bizi izan ditugu sistematikoki.

Erakunde ekologiston eta nartur zaleon lana izan da urte luzeetan egoera hau salatzea, aldaketak eta ardurak eskatuz. Azken gobernu-aldaketan esperantza jarria genuen, baina, Aldundian sartu berri den gobernu-ekipoak ez du aldaketarik ekarri bioaniztasunaren eta natur kontserbazioaren alorrean. Berrito ere, Gipuzkoako erakunde ekologistak baztertuta sentitzen gara, gure eskaerei muzin egiten zaielakoan.

Natur gune ugari, Natura 2000 Sarea barne, formalki sortu baino lehen mehatxupean egon dira: Jaizkibel, Txingudi, Arno, etabar. Hainbat dira mehatxu horien eragileak: Jaizkibelgo kanpo kaia, AHT, basogintza intentsiboa, harrobi erraldoiak etab. Proiektu hauen eragileak diren Pasaiaiko Portuko Agintaritza, Amenabar, Gipuzkoako basojabeen elkarteak etabar eragile esanguratsuak dira gure gizartean, baina haienak bezala, gure ahotsak ere entzuna izan beharko lukeela uste dugu.

1.1 Zergatik eta zertarako gure eskaera?

Ez Euskal Herrian eta ez Gipuzkoan ere, ez dugulako bioaniztasunaren kontserbazioa helburu duen politika eraginkorrik ikusten: ez dugu gure natur ondasunak babestu edota berreskuratzeko politikarik ezagutzen. Instituzioek arlo hau baztertuta dutela sentitzen dugulako

Bioaniztasunak azken urte eta mendeotan gurean izan duen galerari erantzuteko behar morala ez ezik bizi-urgentzia dugula uste dugu; gainera, garaia egokia dela deritzogu, herritarrek inoiz baino sentsibilitate handiagoa erakusten baitute ingurumen gaiekiko.

Asko dira publikoki bioaniztasunaren kontserbazioaren alde han eta hemen egin diren ekimenak, aldarriak, kanpainak, programak etabar, baina, ez dugu nahi mundu mailako aldarrien gerizpean antolatutako kanpainarik; gure herriari begira diseinatutako politika eraginkorra baizik.

Bukatzeko, ezin dugu ahaztu bioaniztasunaren kontserbazioa ezin dela lortu herritarren kontzientziaziorik eta ahaleginik gabe. Berebiziko garrantzia dute, ezinbestez, eraginkorrak izan behar duten informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak eta ingurumen heziketak, bai eskolan eta bai eskolatik kanpo auzo-lanetan landu behar direnak.

Arlo honen eragile nagusi izan garen natur talde eta talde ekologistok kezka handiz ikusten dugu, helburu bertsuak izan arren, administrazioek erakusten duten deskoordinazioa; Udaletik, Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatzatik natur kontserbazioaren aldeko ekimenak jasotzen ditugu, baina elkarren arteko loturarik gabe. Herritarrek ez dakite administrazioek zein eskumen dituzten natur kontserbazioaren arloan, eta benetan zaila egiten zaigu natur taldeoi herritarren eta administrazioen arteko elkarlana bultzatzea.

1.2. Gure eskaera

Foru Aldundiaren eskumenekoak diren eta bioaniztasunaren kontserbazioari dagozkion arloetan ALDAKETAK egitea eskatzera gatoz. Bioaniztasunaren kontserbazioa ulertzeko modutik hasita, bioaniztasunaren kudeaketa-eredu berria diseina dezazuen, Gipuzkoako bioaniztasunaren kontserbazioa eta berreskurapena helburu dituzten politika eraginkorrak burutu ditzazuen, eta administrazioen arteko koordinazioaren gainean gogoeta egin dezazuen.

Aldundiko beste kudeaketa-arlo batzuetan agindu eta eman diren aldaketak ez dira inolaz ere gertatu bioaniztasun-alorreko gaietan. Landa Garapenaren sailaren ardurapean gelditu den arlo honetan zaharkitutako kudeaketa sumatzen eta sufritzen dugu.

2. GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ESKUMENAK BIOANIZTASUNAREN KONTSERBAZIOAREN ARLOAN

Bioaniztasunaren kontserbazioan Aldundiaren eskumenak eta eginbeharrak finkatzen dituzten lege garrantzitsuenak hauek dira:

- Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 Legea.
- Estatuko Ondare Naturala eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legea
- Europako 92/43 Habitaten Arztejarua
- Europako 2009/147 Hegaztien Arztejarua

Aldundiak maila eta arlo hauetan kudeaketa egokia bermatu beharko luke, bereak baitira eskumenak:

- Naturguneak eta Azpiegitura Berdea:
 - Parke Naturalak
 - Biotopo Babestuak
 - Zuhaitz apartak
 - Kontserbazio Bereziko Eremuak
- Habitatak
- Espezieak

Baina, Euskal Autonomia Erkidegoan daukagun instituzio-antolaketaren eraginez, Foru Aldundia ez da gure lurraldean bioaniztasunari lotutako gaiekiko eskumena duen administrazio bakarra. Eusko Jaurlaritzak, eta Udalek zeresan handia dute gai honetan.

Foru aldundiaren eskumenak EAEko zein estatuko beste instituzioekin partekatu beharrak elkarlan eraginkorra egitea eskatzen du: Costas, Puertos, Urak, Itsas Salbamentua ... Aurten, adibidez, baleak hil dira Zarautz eta Donostiako hondartzetan. Bi kasuetan Foru Aldundiko ingurumen sailetik bideratu da bale horiek hondartzatik ezkutatzeko auzia. Baleak ez al dira babestutako espezieak? Non daude horrelakoetarako bioaniztasunaren ikuspegitik egindako protokoloak?

Instituzioen arteko elkarlan hau behar bezala bideratuta ez egoteak, bestak beste, basozainak behar bezalako natur zaintza egiteko aukerarik gabe uzten ditu, eta ondorioz, bioaniztasunaren zaintza paperean baino hartzen ez den ardura da. Beraz, ingurumen gaietan aditua den polizia hezteak eskatu beharko zaio Eusko Jaurlaritzari, edota tokiko poliziak gai hauetan kompetenteak egiteko formatu.

Bukatzeko, sarritan entzuten dugu Eusko Jaurlaritzak ez duela leial jokatzeko eremu babestuak izendatu edota arriskuan dauden espezieen zerrendak argitaratzean horien kudeaketarako aurrekonturik ez duelako behar litzatekeen moduan bideratzen. Egungo eskema jarraituz, egoeraren erruduna Eusko Jaurlaritza dela dirudi, legea garatzen duelako eraginak kudeatzeko baliabideak jarri gabe. Natur balioen kontserbazioa ulertzeko eskema hau aldatzen ez dugun bitartean, benetako elkarlana sustatuz, elkarri ezinak aurpegiatzen jarraituko dugu, guztion kalterako.

2.1 Foru Aldundiaren betebeharrak

2012ko apirilaren 2ko 15/2012 Foru Dekretuan, Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuaren egitura organiko eta funtzionala ezarri zen 16. Artikuluan. Bertan jasotzen dira Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiaren funtzioak:

1. *Bere titularraren buruzagitza eta ardurapean, aipatu zuzendaritza nagusiak ondorengo eginkizunak ditu, foru dekretu honetako 4. artikuluan adierazitakoez gain:*
 - a) *Mendiak administratu, kudeatu, zaindu eta babestea, lehengai berriztagarrien sorburu izaki, biodibertsitatearen eta genetikaren kontserbazioa ziurtatuz, garapen iraunkorreko irizpideak erabilita eta betetzen duten funtzio soziala eta ekologikoa errespetatuz.*
 - b) *Gipuzkoako mendien ingurumen, ekonomia eta gizarte alderdia modu iraunkorrean bultzatzeko beharrari erantzungo dion baso plangintza egitea, eta aniztasun biologikoa, lurzoruen artapena eta uren erregimena eta kalitatea ahalbidetzea.*

- c) Diru laguntzak ematea, mendien funtzio ekonomiko, ekologiko eta sozialak zaindu eta ugaritzen lagun dezaketen inbertsioak, ekintzak edo lanak modu iraunkorrean egin daitezzen.*
- d) Baso suteak prebenitu, zaindu, atzeman eta itzaltzea.*
- e) Baso izurriteak eta gaixotasunak prebenitu, atzeman eta suntsitzea.*
- f) Foru Aldundiaren mendietan larre ustiapenak eta artzaintza antolatu, sortu eta hobetzea eta herri onurako mendietan larreratzeko eskaerak baimentzea.*
- g) Naturagune babestuak kudeatu eta administratzea.*
- h) Ibai uretako arrantza nahiz ehiza baliabideen ustiapen antolatua bultzatzea.*
- i) Espezie inbaditzaileak kontrolatzea eta desagerraraztea.*
- j) Mehatxatu gisa katalogatutako espezieak berreskuratu eta mantentzea*
- k) Gipuzkoako ibaien arrain eta biologi aberastasuna zaindu eta kontrolatzea.*
- l) Araudia betetzen dela kontrolatzea, bere eskumeneko eremuan, basoari, ehizari, ibaiko arrantzari eta espezie eta naturgune babestuei dagokienez.*

1. Halaber, eskumen hauek eduki eta erabiliko ditu, deskontzentrazioko arauei jarraituz:

- a) Baso laguntzei dagokienez, FEADER funtsaren finantzazio itzulketak eskatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileari.*
- b) Mendi gaietako araudia urratzeagatik zigor espedienteak ireki eta ebaztea.*

Aipatutako zerrenda irakurrita, Foru Aldundiko organigraman bioaniztasunaren kudeaketa Mendietako eta Natura Ingurunekeo Zuzendaritza Nagusiaren kokatuta dagoela esan liteke. Baina, Ingurumena eta Lurralde Antolaketa zein Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak sailek ere bioaniztasunean eragina duten jardueretik eskumenak dituzte. Beraz, Foru Aldundiko organigrama bioaniztasuna behar bezala kudeatzeko oztopo izan daitekeela pentsa liteke.

Organigrama alde batera utzita, betebeharrei dagokienez, zerrendatutakoez gain Foru Aldundiak ondorengoak ere bete beharko lituzkeela uste dugu:

1. Aurrekontuetan garbi islatu natur kontserbaziora bideratzen den dirua.
2. Natur ikuspegitik interesgarriak diren guneen mapa eguneratua izan, beti ere potentzialki duten baloreari erreparatuz. Gune horiek elkar lotzeko planak egin,

babestutako gunean sare modura uler ditzagun, eta ez irla modura. Ondo kontserbatutako eremuen artean (basotxoak, errekaak ...) korredore "naturalak" finkatu eta bide honetan lana egin.

3. Babestutako eremuetan kontserbazioa lehenetsi, turismoaren eragina ondo neurtuz. Gaur egun natur kontserbazioaren kudeaketan balio naturalen berreskurapena baino turismoa lehenesten denaren ustea dugu.
4. Galtzear dauden landareen hazitegia sortu.
5. Bertako zuhaitz eta zuhaixken mintegia hobeto kudeatu eta ezagutarazi. Mintegi honetatik irten beharko lukete mendiak, erriberak, dunak padurak etab. berreskuratzeko landareak, eta lan hori, hein handi batean, lur jabe pribatuen esku dago.
6. Landare eta animalia inbaditzaileen aurkako borrokan lidergoa hartu, potentzialki arriskutsuak izan litezkeen espezieen salerosketan kontrolatuz.
7. Erreka bazterrak dagokien landaredia potentzialarekin berreskuratzeko plan eraginkorra egin epe motz, ertain eta luzea aurreikusiz.

3. GIPUZKOAKO BIOANIZTASUNAREN KONTSERBAZIOAREKIKO GURE DIAGNOSTIKOA

Jarraian Gipuzkoan babestuta dauden natur guneen eta espezieen, kudeaketaren gaineko gure iritzia jaso dugu, uler dezazuen zuei azaldu nahian gabiltzan ikuspegia nondik datorren.

3.1 Natur gune babestuak

Natur gune babestuak, zertatik babestu behar dira? Baserritarren jarduera suntsitzailetik, basogintza-eredu kaltegarrietatik, eraikuntza berrietatik, arrantzatik eta ehizatik, kontrolik gabeko turismo masifikatutik ... Funtsezko galdera honi erantzutean konturatzen gara zeinen gaizki egin den lana arlo honetan gaurdaino: baserritarren egoera gero eta negargarriagoa ikusi, eta beste aldera begiratu da. Basogintza-eredu kaltegarriak debekatu ordez, sustatu egin dira, urbanizazio berriak han eta hemen hala-moduzko baimenekin egin dira, arrantza eta ehiza beti kontrolik gabe egiten ari direnaren susmopean gaude (izokina, amuarraina, usapala, oilagorra ...), turismo masifikatuarentzat erraztasunak jarri dira (bide berriak irekiz ...), babestutako eremuetan erabilera publikorako planak egin aurretik Badago zer hobetu!

Ondorengo lerroetan Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 legeak ezartzen dituen Parke naturalak, biotopo babestuak eta zuhaitz apartekoak diagnostikatuko ditugu, zein egoeratan dauden aztertu eta horrekiko gure iritzia agertzeko.

3.1.1. PARKE NATURALAK

A) Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzailea (EKPE)

Parke Natural bat deklaratu ondoren, urtebeteko epean, Foru Aldundiak Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzailea (EKPE) eratu behar du. Plan honek bost urteko indarraldia du eta, behin epe hau bukatuz gero, derrigorrez berraztertu beharko dira.

Gipuzkoan 4 Parke Natural ditugu eta hau da EKPEen egoera:

➤ Aiako Harria Parke Naturala

1995ean deklaraturua, 2002an argitaratu zen EKPEa. Handik hona 10 urte igaro badira ere, hasierako EKPEa ez da berraztertu.

➤ Aizkorri-Aratz Parke Naturala

2006ean deklaraturua, EKPERik ez da eratu.

➤ Aralarko Parke Naturala

1994an deklaraturua, EKPERik ez da eratu.

➤ Pagoetako Parke Naturala

1998an deklaraturua, EKPERik ez da eratu.

B) Zaingo Batzorde edo Patronatoak

Parke Naturaletan gizartearen ordezkaritza eta partaidetza islatu behar dituzten Organoak direnez, legeak, EKPEa onartzeaz gain, urteroko kudeaketa-egitaraua eta inbertsio eta jardueren urteko egitaraua eta aurrekontua onartzeko ahalmenak ematen dizkie.

Gipuzkoako Parke Naturaletan, orain arte, itxurak gordetzeko organoak besterik ez dira. Urtean behin -legeak ezartzen duen gutxieneko maiztasuna- biltzen dira tramite hutsal bat betez. Eta, Aiako Harria edo Pagoetako kasuetan, Patronatuko hainbat kide saiatuagatik, Aldunditik ez dute inongo aurrerabiderik eskaini.

C) Zuzendari-gordetzailerik izendatu

Gipuzkoan gaur egun ez da zuzendari-gordetzailerik izendatu.

Beraz, Gipuzkoako lau Parke Naturelek oinarrizko araudirik gabe daude: Erabilera Planen (EKPE/PGUG) lege ezarritako epealdia gaindituta, edo onartu gabeak. Legez kanpoko egoera negargarrian.

Parke naturalen kudeaketarako organo nagusiak beharko luketen patronatuek oro har ez dutela bere funtzioa ongi betetzen uste dugu: biltzen ez direlako, edo biltzen direnetan, hartutako erabakiak hutsalak izan ohi direlako.

Horren adibide garbia dugu Pagoetako Natur Parkea, zeina orain baino lehen Europan salatua izan den. Parke horretan, PRUGa –Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzailea- onartzeke egonik, parkearen erabilera publikoa arautzeko dokumentu bat onartzeko bilera deitu zuten iaz. Antolaketa-falta eta arduragabekeria handi hori salagarriak eta onartezinak iruditzen zaizkigu.

Natur Parkeen kudeaketa egoki erregulatu eta gauzatu behar da. Eta informazioak gardena izan behar du. Izan ere, une honetan apenas dugu parkeen lan egiteko moduaren gaineko informaziorik; dugun informazio eskasa, turismoari lotutakoa da. Informazio eta gardentasun falta horrek ekartzen du ezbaian jartzea une honetan parkeetan baimentzen diren hainbat ekintza legezkoak diren edo ez, eta zalantzakor geratzen gara asko eta asko.

Parke Naturaletako Zuzendaritzek askotan ez dituzte bere funtzioak betetzen, ez dago Parkeen bulegorik, non herritarrek proposamenak eta salaketak jartzea edo informazio soila eskuratzea duten.

Udalek edota eragile sozialek bideratutako natur kontserbaziorako eskaerak gehiegitan ez dira artatu Aldundian.

Parke Naturaletan sarritan zigorgabetasuna da nagusi. Esaterako:

- Legez kanpoko ehiza postuak daude. Hori berez larria izanik, are larriagozat jotzen dugun natur parkeetan gertatzea, non kontrolak zorrotzagoa behar zukeen (natur parke izaera bera, pistak erabiltzeko baimen beharra...).
- Matarrasak. Basoaren kudeaketan eskuhartzeko era ezegokia iruditzeaz gain, larria deritzogu babestutako guneetan eta gorde naiz bultzatu beharreko (harizti, pagadi...) espezieekin erabiltzea; are gehiago, espeziek eta kokaguenak ikusita, kasu askotan ingurumen eraginaren azterketa beharko luketen jarduerak inongo azteketarik gabe egin dira, pistak ireki dira ibai eta errekek zeharkatuz...

3.1.2. BIOTOPO BABESTUAK

Gipuzkoan hiru baditugu ere, ez dago inongo informaziorik eskura:

- Leitzaran ibaia: 1995ean deklaraturata.

Hamazazpi urte pasa ondoren, Aldundiak ez du kudeaketa planik azaldu, nahiz eta arro honen lurren zati handi bat bere jabetzakoa izan.

- Iñurritza: 1997an deklaraturata

2006ean Gipuzkoako Foru Aldundiak bere Plan Berezia onartu zuen zeinek, besteak beste, honela dio:

"Izapidetzen ari den NBAParen zehaztapenen arabera, beharrezkotzat jo da plan berezi honetan bildutako xedapen eta jardueren jarraipena egitea, bertan adierazitako helburuen betetzeari buruzko datuak biltzeko, bai eta 92/43/CEE Zuzentarauaren 6. artikulua Natura 2000 sarean sartutako espazioetarako ezarritako betekizunei jarraiki habitat eta espeziarentzako ezarritako kontserbazio neurriei buruzkoak ere.

Gutxienez bi urteko aldizkakotasunarekin Organo Kudeatzaileak egikaritutako proiektuak eta inbertitutako baliabideak berrikusiko ditu, bai eta ezarritako kontserbazio neurriak ere, helburuak eta emaitzak egiaztatzeko. Horrez gain, konponbideak proposatuko dira antzemandako arazoak konpontzeko eta hurrengo aldian aurre egin beharreko proiektu eta lanak antolatuko dira."

Sei urte pasa dira eta ez da inongo informaziorik eskaini.

- Deba-Zumaia: 2009an deklaraturata

Natura Baliabideak Antolatuzeko Planak, besteak beste, honela dio:

"Beharrezkoa da Antolamendu Plan honetan jasotako xedapen eta jarduketan jarraipena egitea, bertan ezarritako helburuen betekizunari buruzko datuak biltze aldera.

Bi urtean behin gutxienez, gauzatutako proiektuak eta jarritako baliabideak nahiz ezarritako kontserbazio-neurriak berraztertuko ditu Organo Kudeatzaileak, helburuak eta emaitzak alderatzeko. Bestalde, hautemandako arazoak konpontzeko irtenbideak proposatuko dira eta hurrengo aldian zehar abiarazi beharreko proiektuak eta lanak planifikatuko dira."

Hiru urte pasa dira eta ez da inongo informaziorik eskaini.

Biotopo babestuen inguruan Parke Naturalekin gertatzen denaren antzekoa gertatzen da: ezin dugu inon irakurri eremu hauen kudeaketa zein den. Tarteka administrazioetik iristen zaizkigun berrien bidez jakiten dugu leku horietarako interesatuek dituzten asmoak, baina hauen kudeaketa ere arrotza zaigu.

Esaterako, Zumaia eta Deba arteko babesgune izendatu aurretik kudeaketarako Patronatua sortuko zela esan zen. Ezinbestekoa ikusten dugu eremu horretan egingo diren lanetan erabakia hartzeko aukera izatea inplikaturik dauden eragile guztiek: Deba eta Zumaiako udalak, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza, natur taldeak, baserritarrak, arrantzaleak, ehiztariak etab. Bide horretan ari da Zumaiako Udala eta txalotzekoa da bere ekimena. Ez al litzake egokiagoa horrelako ekimenen lidergoa Foru Aldundiarena izatea?

Beste adibide bat Debako Duquesa eta Urkulu harrobietan gertatzen ari dena da. Harrobi horiek zabaltzeko Debako Udalak arau ordezkatzailerik aldatu behar ditu, gaur egunekoek ez baitute balio natural handiko eremurik suntsitzen uzten, eta harrobiaren ustiaketa baimentzeko egindako Plan Bereziaren Ingurumen Txostenak dioenez, zabaldu nahi den eremuaren % 13a 9180* lehentasunezko habitatak (mendi-hegaletako basoak, lurjausiak edo Tilio-Acerion sakanak), okupatzen du. Gainera, Izarraitz-eko GKL-aren mugan dago eremu hori. Mutrikun Arnoko GKL-aren ertzean ere beste harrobi bati irekierabaimena eman zaio, nahiz eta horretarako eskatzaileek 1996rako baimenak eskuratuak behar zituzten, eta 2007 arte ez zituzten lortu. Uste dugu GKL horien ertzetan baimentzen diren jarduera suntsitzaile horiek duten eraginaren inguruko azterketa egin beharko lukeela Landa Garapena sailak.

3.1.3. ZUHAITZ APARTEKOAK

Izendatu ziren eta gaur arte.

Aparteko zuhaitzei dagokionez, <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net> guneari esker jakin dezakegu non dauden; ongi legoke baita ere, jakin ahal izatea zein egoeratan aurkitzen diren, eta zein modutara kontserbatzen diren.

3.2 HEZEGUNEAK. Ramsar nazioarteko garrantziko hezeguneak eta Hezeguneen Lurraldearen arloko plana

Hezeguneak eta, bereziki, itsas hezeguneak erabat kaltetu ditugu gure lurraldean. Azken hamarkadetan ekosistema hauekiko begirunea gero eta handiagoa da, baina haize-bolada hau ahul eta berandu iristen ari da gurera zoritxarrez.

Joera honi erantzunez adostu ziren bere garaian Ramsar nazioarteko sarea eta EAEko Hezeguneen Lurraldearen arloko plana. Gipuzkoan, Txingudiko hezegunea dago Ramsar sarearen barruan. Izendapena lortuta ere, oraindik orain eztabaida-iturri da Txingudi: zergatik egin duzue txikiagoa Babes Bereziko Eremua, Batasunaren Garrantzizko Lekua baino? Erantzun jatorra nahi dugu.

Bestalde, EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planean hainbat eremu hartu ziren kontuan, baina ez guztiak; eta, gainera, eremu horiekiko ez da epe luzerako plangintza orokorrik egin, plan batean jaso dira eta kitto, hortxe bukatu da dena. Zergatik? Zertarako?

Hori gutxi balitz, Hiri Antolaketan dihardutenen ikusmoldea plan horiekiko oso hertsia izan ohi da, eta maiz zeharkako bideak aurkitzen dituzte horien gaineratik salto egiteko, nahi dutena lortzearen. Eta plan horietan ez dira sartzen maiz, degradatuta egonagatik, errekupegarriak diren eremuak; Zarauzko Ihidieta edo Zumaiako Narrondo kasu: administrazioaren jarrera harekiko guztiz mespretxagarria da, entzungor egiten baitio ezer berriari.

Ez dugu ikusten hezeguneek duten garrantziarekiko sentsibilitaterik dagoenik, eta Foru Aldundiak arlo honetan baduela eskumenik iruditzen zaigu: mehatxupean dauden espezieak ohikoak direlako eremu horietan, garrantzia komunitarioko habitatak daudelako, edota obra hidraulikoen arlotik erantzun ahal delako.

Bukatzeko, ezin ibaiak eta horiek egoera tamalgarria ahaztu. Zentral hidroelektriko ugariak eragiten dituzten inpaktu larriak, kanalizazio basatiak, errespetatu ez diren ibai ertzak etab. espezie ugariaren kontserbazio-egoera penagarria izatea eragin du, batzuk desagertzeko arriskuan jarriz (bisoi europearra, muturluzea ...). Gainera, han eta hemen egin diren urbanizazio-lanek ibai eta errekek larriki hustea eragiten dute euri gutxi

dagoen garaietan (udaran, udazkenean), sarritan emari ekologikoak ez direlarik errespetatzen (Zarauzko Igerain erreka da horren adibide argienetarikoa).

Hezeguneei dagokionean ere, Foru Aldundiak nahikoa egin ez duela ondoriozta daiteke.

3.3 Natura 2000 sarea

Europako 92/43/EEE eta 79/403/EEE Zuzentzauei erantzunez, Eusko Jaurlaritzak 2003an 52 Batasunaren Garrantzizko Leku proposatu zituen; horietatik 18 Gipuzkoakoak, eta hauen barruan aurreko atalean aipatutako natur gune babestuak. Beste 4 Kontserbazio Bereziko Eremu ere proposatu zituen, horietatik Txingudi Gipuzkoakoa. Guztira 40.000 Ha baino gehiago. Horiek guztiak osatuko dute EAEn Natura Sarea 2000, baldin eta inoiz eremu horiek guztiak Babes Bereziko Eremuak (BBE) bihurtzeko prozesua bukatzen bada (ia 10 urte pasa dira eta oraindik horretan ari dira!). Legez 2010eko abenduan egon behar ziren Natura 2000ko Kudeaketa-Planak onartuta eta Bruselara bidaliak. 2012an Eusko Jaurlaritzako Gobernu-Kontseiluak 12 BBE-ren kontserbazio-neurrien dokumentuak onartu ditu.

Izendapen horiek guztiak Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak dira, eta BBE horien kudeaketa ere bere esku geldituko da, hein batean. Izan ere, lehendik natur gune babestuak zirenen kudeaketa Foru Aldundiekin partekatu beharko baitu. Zein izan da Gipuzkoako Foru Aldundiaren jokabidea honetan guztian?

Ez dakigu, ez baitzaigu informaziorik ematen. Baina, susmo argia daukagu. Bi instituzioen artean berebiziko talka egon da bien artean kudeatu behar dituzten eremuengatik. Bestela, nola uler daiteke EAEko Hezeguneeen Lurralde Plan Sektorialean babesten diren eremuan Natura 2000 saretik kanpo gelditu izana, Urola ibaiaren KBGan gertatu den bezala? Behar bada eztabaida horien ondorioz atzeratu da izendapenen kontua guztia, baina, lehen urratsetan hori gertatu bada, zer espero behar dugu aurrerakoan? Kudeaketa-modua ezartzeko eztabaidan hasiko bazarete, noiz ikusiko dugu benetako gune babestuen sarea Gipuzkoan?

Dakigunaren arabera, Patronatuak izaten jarraituko dute parke naturaletan kudeaketa-organo nagusiak. Zeren bermea da hori? Nola kudeatuko dira gainerako babestutako

eremuak? Eusko Jaurlaritzak bideratu dituen partehartze-saioetaz fidatu behar badugu, akabo! Orain arteko erabakiak “manu militari” hartu dira, hau da, herritarren eta herri eragileen ekarpenak aintzat hartu gabe. Behin eta berriro errepikatzen dute izendapen horiek egin aurretiko prozesuetan herritarren partehartzea bermatu dela, baina bileretara jendea hurbiltzea besterik ez da bermatu, Naturaren kontserbazioaren alde gauden elkarteetatik egin diren ekarpenak sistematikoki baztertu baitira.

Argi geratu zaigu, beste behin, herritarren eskaerak administrazioan inolako ardurarik sortzen ez dutela.

Gaitzerdi, hau guztia bioaniztasunaren mesederako balitz, baina ez: errealitateak erakusten digu ez dela hobetu ekainaren 30eko 16/1994 “EAEko Natura Babesteko Legea”ren gerizpean babestutako eremu bakar baten kontserbazio-egoera; aitzitik, asko eta asko dira eremu horietan sortu diren liskarrak, onartu/ahalbidetu diren erabilera okerrengeatik, kudeaketa kontuengatik edo kontrol ezarengatik.

3.3.1. KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAK (KBE) eta BATASUNAREN GARRANTZIKO LEKUAK (BGL)

Habitaten 92/43 Arzetarauak sortu zuen Natura 2000 Kontserbaziorako Sare Europarra, Kontserbazio Bereziko Eremuek (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuek (HBBG) osatzen dutena. Gipuzkoan 18 BGL zeuden eta HBBG 1, Txingudikoa.

Arzetarauak dionez, BGLak izendatu ondoren, gehiengoz 6 urteko epea dago KBE bihurtzeko. Jadanik 8 urte pasa direnean, hauetako 12-rentzat (Araxes Ibaia, Arno, Ernio-Gatzume, Garate-Santa Barbara, Iñurritza, Izarraitz, Leitzaran Ibaia, Oria Garaia, Oriako Itsasadarra, Pagoeta, Urolako Itsasadarra, Urumea Ibaia) Kudeaketa Plan bana onartu berria du Eusko Jaurlaritzak.

Geratzen diren beste sei etan (Aiako Harria, Aizkorri-Aratz, Aralar, Jaizkibel, Txingudi-Bidasoa eta Uliá) Kudeaketa Planak izapidetzen ari dira eta, epeak aspaldi iraungita daudela kontuan hartuz, aurki onartu beharko dira.

Kudeaketa Plan hauek datozen 6 urtetan hartu beharreko neurriak eta burutu

beharreko jarduerak ezartzen ditu eta, honetarako, urtez-urteko aurrekontu orientatzaileak ematen.

Plan hauek gauzatu behar dituenz gero, zer asmo, plangintza,..., ditu Aldundiak?

3.3.2. INTERES EUROPARREKO HABITATAK

92/43 Habitat Arzetarauaren aginduak betetzeko, interes europarrekoak diren habitat naturalak eta fauna eta florako espezie basatiak zaindu beharko dira; hartuko diren neurrien helburua guzti hauen kontserbazio egoera egokia mantentzea edo berreskuratzea izango da (2. artikulua). Eskumena duen administrazioarena izango da 2. artikuluan adierazten diren espezie eta habitaten kontserbazio egoera zaintzearen ardura; eta kontu berezia eduki beharko du lehentasunezkoak direnekin (11. artikulua).

Gipuzkoan, interes europarreko 48 habitat ditugu eta, hauetatik, 10 lehentasunezkoak dira. Autonomi Elkartean egin berria den ebaluaketaren arabera, hauetako 38tan kontserbazio egoera ez da egokia edo, hobeto esanda, txarra da benetan. Honen aurrean, zein dira Foru Aldundiak hartu behar dituen neurriak?

Bukatzeko, aipamen berezia merezi du babestutako natur guneetatik eskaintzen den ingurumen-heziketak: bai herritarrei zein eskola komunitateari eskainitakoak. Parke natural guztiek harrera etxeak dituzte, eta horietatik hainbat dira eskaintzen diren informazio eta heziketa jarduerak. Baina, horien inguruko informazioa jasotzea zaila izateaz gain, gaizki antolatutako zerbitzua da eskaintzen dena, gure iritziz. <http://www.gipuzkoamendizmendi.net> bezalako web-orriak erabili daitezke horretarako, baina orain duen zentzu turistikoa baino bestelako ikuspegia landuz. Web-orri hori da Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutako eremuekiko izan duen ikuspegiaren adierazgarri onena: turismoaren sustapena, babestutako eremuei balioa emanez (alegia, ditxosozko "*puesta en valor*").

Beldur gara, ordea, gauzak horrela jarraitzekotan, ez dela zer erakutsi askorik egongo ...

3.3.3. ITSASOKO NATURA 2000 SAREA NOIZKO?

Itsu-gor

Bukatzeko, ezin ahaztu esparru honetan historikoki amnesia/bazterketa historikoa izan duen esparrua: itsasoa. Kontserbazioaren ikuspegitik, Foru Aldundiak ez du Gipuzkoako kostaldearekiko edota itsasoarekiko ikuspegi argirik erakutsi inoiz.

Gipuzkoak kostalde/itsasorik ez balu bezala jokatu izan du Gipuzkoako Landa Garapenerako Sailak. Eta eskumenik ez omen du sail horrek, sailaren izenak berak aditzera eman diezagukeen gisan. Baina, orduan, zeinena da eskumena? Nork hartuko du itsasoari zor diogun ardura? Antolaketa administratibo eta eskumen banaketa ororen gaitetik, Gipuzkoak kosta du, eta kostatik haratago itsaso zabala. Eta eremu horretako bioaniztasuna arriskuan dago, hein handi batean gipuzkoarrok itsasoan arrantzarengatik, eragin dugun kutsadurarengatik, nahiz eta azken urteotan eragin hau asko txikitu den, eta kostaldean hirigintza-planengatik egindako basakeriengatik. Noiz hasiko zarete hortaz arduratzen eta egoki kudeatzen?

Kostalde osorako kudeaketa

Surfrider Foundation Europe South Atlantic bezalako mundu mailako erakundea Donostian izan zen azaroaren 9an, "Itsasertzeko lurralde kudeaketaz" jarduteko. Jaizkibe-Ulia Garrantzia Komunitarioko Lekua izan zuten abiapuntu, eta galdera bakarra helburu: noizko kostalde osorako natur kontserbaziorako plangintza?

Izan ere, alde batera dugu Zumaiaiko Biotopo Babestua eta bestera Jaizkibel-Uliako GKL-a. Lehena egitura geologikoengatik babestua; bigarrena, egitura geologiko bera izanik, dituen habitat interesgarriengatik babestua. Lehena Foru Aldundiaren kudeaketaren mende dago; bigarrena, berriz, Eusko Jaurlaritzarenaren mende: zein zentzu du horrek guztiak?

Bestalde, urte batzuk pasa dira Zumaia-Debako biotopoa babestu zenetik eta oraindik "babes ingegraleko eremurik" ez da izendatu... Ez dago harraldea zein labarrak bisitatzen dituzten turista, ikasle, ikerlari eta bestelakoek ingurunean

duten eraginaren ikerketarik; eta guk dakigula, ezta zientzialariek hartzen dituzten laginek kontrolik ere.

Kostaldearen eta itsasoaren egoerak kezkatuta sortu zen dokumentu honen sinatzailea den Ondarroa 12 milia plataforma. Plataforma honek Euskal Herri osoko itsas eremua du aztergai, eta gipuzkoako Natur eragile askok sinatu ditu bere aldarrikapenak. Itsasoko bioaniztasunaren ustiapen jasangarria du helburu, eta bere eskaera zein planteamenduak ondorengo web-orrian aurki ditzakezue:

<http://www.ondarroa12.org/>

Arrantza-politikaren aldaketa

Euskal Herrian gertutik bizi dugu gure itsas portuen eta arrantza-sektorearen gainbehera. Urtarrilerako Europak datozen 10 urtetarako arrantza-plangintza berria (PPC) bideratzen ari da. Ez dira gutxi han bizi dituzten gatazkak, hein handi batean arrain-stock guztiak gainustiatuak daudela frogatu dutelako zientzialariek.

Gure itsasokoak ez dira salbuespena, eta ezta gure kalen egoera ere. Horrek arrantza-politika aldatzea eta sektore honekiko irizpide berriak bilatzea eragin beharko luke. Baina, baita itsasoaren kontserbazioaren alde urratsak ematea ere.

Egoera honetan, onartu ezina da gaurko arrantza sektoreak duen jarduera, ura dagoen toki guztietan eta babez gunetan ere arrantza egiten da inolako kontrolik gabe eta inork inori konturik eskatu gabe (Bermeoko MOTXO itsasontziari gertatutakoa uste baino gertuago egon liteke).

Gaur gure kostaldeko baliabideen egoera ikusita, kirol arrantzak egin duen ibilbidea eta jarduera-maila ezin ditugu onartu. Itsasontzi hauek ez dute betetzen indarrean dagoen legedia, eta euren jarduera kalte itzulezinak eragiten ari da galzorian dauden espezie askorengan.

Itsasoaren babesa

Euskal Herriak ez du babestua izateko itsas-eremurik proposatu; ez daukagu Garrantzia Komunitarioko itsasoko Lekurik, eta beraz, Natura 2000 Sarean ez da gure itsasoa agertzen. Zergatik? Egia da Azti-Tecnalia Fundazioa hori ikertzen ari dela? Zergatik eta zertarako? Berriro ere galdera mordoa, politika ez-garden batek sortuak.

Gure eskaera

Gipuzkoako natur zaleok egin dugu gure proposamena, eta zinez, momentu honetan gure itsasoko bioaniztasunaren ustiapen jasangarria egiteko modu bakarra dela sinesten dugu: aurreko orrian aipatutako web-orrian aurki daiteke proposamena, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diogu azter dezala, eta bitartekoak jar ditzala gauzatzen laguntzeko, baldin eta, gure moduan, bideragarria eta beharrezkoa dela irizten badio; eta hala ez bada, ager ditzala bere argudioak eta aurkez dezala alternatiba egokiago bat.

3.4 Babestutako espezieak

Natura Babesteko Legearen arabera, arriskuan dagoen espezie bakoitzerako kudeaketa plan bana idatzi eta onartuko beharko da (Eusko Jaurlaritzarekin elkar hartuta). Plan horrek espezie horiei erasaten dieten mehatxuak haultzeko beharrezko neurriak eta egiterapideak izango ditu. Espezie horien populazioak berriz oneratzeko, gordetzea eta egoki erabiltzea zein horien habitatak babestu eta iraunaraztea sustatuko du

Gipuzkoan 238 espezie dira mehatxatuak daudenak, kategoria hauetan:

Galtzeko arriskuan: 36

Kalteberak: 62

Bakanak: 67

Interes berezikoak: 63

Orain arte hiru Kudeaketa Plan onartu dira Gipuzkoan (igeltxoarena, muturluzearena eta bisoiarena). Kontutan izanda jada galtzeko arriskuan (hau da, egoera larrienean) 36 espezie katalogatuta ditugula, zein dira Aldundiaren aurreikuspenak? Noiz onartu

behar dira legeak eskatzen dituen beste Plan guztiak? Zer emaitza lortzen ari da indarrean dauden Planekin?

Honetaz gain, Habitat Arzetarauak hainbat espezie babesten ditu, bere II, IV eta V eranskinetan azaltzen. Euskal Katalogoan jasota aurkitzen direnez gain, badira beste batzuk hemengo legean aipatzen ez direnak, batez ere ornogabeak animalien artean eta goroldio eta likenak landareen kasuan. Eta hauekin zer egiteko asmoa dago?

Aipatu bezala, Eusko Jaurlaritzak bere web-orrian argitaratuta dauzka EAE-ko espezie Mehatxatuen Katalogoa (<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-bio/eu/>), Zerrenda Gorria, EAEn lehentasuna duten espezieen zerrenda eta Batasuneko Intereseko EAeko espezieena. Zoritxarrez, orri horretan ez dira espezie horien banaketak azaltzen, eta beraz, ez da erraza Gipuzkoan dauzkagunak zehaztasunez ezagutzea...

Zer ari da gertatzen Gipuzkoan mehatxatuta dauden espezieekin? Ebaluatzen al dira kudeaketa plan hauen betetze maila eta eraginkortasuna espezieen kontserbazioaren bermean? Ezin al da jakintza hori zabaldu? Hegazti nekrofago handien kudeaketa planak noizko egingo dira? Nekrofago hauen ustezko kalteak eta kalte ordainen arautzea noizko egingo du Aldundiak? Zenbat galdera erantzunik gabe!

Bukatzeko, ezin ahaztu ehiza. Babestutako inguruetan ehizatzeari dagokionez, herritar askok galderak egiten dizkigute urtero: nolatan baimentzen da ehiza babestutako eremuetan? Nork kontrolatzen du hori? Zeren baitan? Ez daukagu daturik, ezta informaziorik herritarren kezka argitzeko. Ehizari buruzko txostena aurkeztu dugu, beraz ez dugu esandakorik errepikatuko.

Landareekin gertatzen dena, bestalde, ez da ulergarriagoa. Esaterako, Aranzadi Zientzia Elkarteko botanika sailak aldundiak baino gehiago kontrolatzen baitu gai hau (eta ez gara jakintzaz ari, kontrola diogunean). Desagertzeko arriskuan dauden hainbat espezie, *Spartina maritima* kasu, desagertzen uzten ari direla uste dugu, eta AZTIk *Zoostera nolti* espeziari buruz egiten ari den ikerketa interesgarria dela baderitzogu ere, hau guztia antolatzeko modu egokiagoak behar direla uste dugu. Hain egoera kaxkarrean dauden espezieak berreskuratzeko hazitegi berezia sortu behar da lehenbailehen! Eta landareen atlas berria egin (aurrekoa 1986koa da).

3.4.1 ESPEZIE ARROTZ INBADITZAILEAK

Gure eremuan berezkoak diren espezieen bioaniztasuna galtzen ari garen bitartean, gero eta arruntagoak eta ugariagoak dira gurean espezie arrotzak, eta horietako batzuk inbaditzaileak bihurtzen ari dira. Fauna eta flora exotikoak biak hala biak ari dira ugartzen, eta horren aurrean Eusko Jaurlaritza hasia da planak egiten.

Sarritan, hauen inguruko panfleto modukoak jasotzen ditugu, baina Foru Aldunditik ez da plazaratu espezie hauen arriskuak gutxitzeko plan orokorrik. Arlo honetan, herritarren parte-hartzearekin, auzo-lanean, lan eskerga egin daiteke.

Natur taldeak eta talde ekologistak, zein bestelako herritar taldeak aliatu bikainak izan daitezke espezie kaltegarri hauek dituzten arriskuak gutxitzeko. Baina, horretarako administrazioaren, eta bereziki Foru Aldundiko Landa Garapena sailaren zuzendaritza eta koordinazioa behar ditugu.

Arren, jakin egoera ongi kudeatzen: badakizue non aurkitzen diren espeziok? Kokatuta dituzue Lurralde osoan? Nola jokatu duzue espezie bakoitzaren aurrean? Zein ardura emango diguzue herritarroi, eta nola egingo duzue?

Adibideak jartzen hasita, hor dauzkagu *Carpoblrotus edulis*, *Cortaderia selloana*, edo *Buddleja davidi* bezala espezieak. Kolonizatzaileak izan daitezkeela ikusita ere, lore dendetan salgai jarraitzen dute. Nola liteke?

INSUB-ek itsasoan dauden hainbat animalia eta alga arrotzen inguruko informazioa kaleratuta dauka. Zer egin da honen inguruan?

Nola gauzatzen da lore eta animalia dendatan saltzen diren espezieen kontrola? Zeregin horretarako Foru Aldundiak baliabide eta aurrekonturik ba al du? Non dago informazio hori guztia?

Bukatzeko, guretzat larria den arazoa aipatu nahi dugu: Mutrikun dagoen bisoi amerikarraren granja. Bisoi europarra (*Mustela lutreola*) ugatza edo artza baino egoera okerragoan dagoen mehatxatutako espeziea da. Espezie honek duen arrisku handienetarikoa bere nitxo ekologikoa okupatzen duen bisoi amerikarra da (*Neovison vison*). Mutrikuko Olatz bailaran espezie hau hazten duen granja dago, eta urteetan zehar, inguruko baserriek (Urreztietia, Txurruka, Iturritza) hainbat aldiz salatu dituzte

granjatik ihes egindako bisoiek egindako kaltea. Hain da etsigarria egoera, ezen euren aziendetan egindako kalteak salatzeari utzi diotela salaketek ez dutelako ezertarako balio. Ondorengo irudian ikus daitezke abenduaren 9an Urreztietan baserriko txakurrak harrapatutako bisoi amerikarraren argazkiak:



Noiz arte jasan behar dugu horrelakorik?

Azkenik, ezin ahaztu aurten ere hainbeste kexa eragin dituen pinu beldarren fumigazioen kontua. Arazo hau inbaditzailea ez bada ere, arrotza den espezie baten zuhitz-landaketa masibo eta espeziebakarrak eragin du, *Pinus radiata* espezieak hain zuzen. Aurreko txostenetan agerian utzi dugu basogintza-eredu honekiko gure ikuspegi kritikoa, eta ez dugu hemen errepikatuko. Baina horren eraginez hegazkinetatik egiten diren fumigazio-kanpaina indiskriminatuek berebiziko kezka sortzen digutela ezin dugu aipatu gabe utzi. Fumigazio horiek gure lurraldeko basabizitzan ez dutela inolako eraginik frogatzen duten ikerlanik lortu ezean, debekatzea eskatzen dugu.

4. GURE PROPOSAMENAK

4.1 Kontserbazioari eta berreskuratzeari begira jartzea

Natur kontserbazioa garrantzia gutxiko gaia dela uste dugu Foru Aldundiarentzat. Interes pribatu ilunen baitan kudeatu den arloa delakoan gaude, eta datu zehatzik ez badugu ere, aurrekontua ez dela esanguratsua pentsatzeko arrazoiak ditugu.

Naturaren kontserbazioa Gipuzkoako Lurraldearen Garapenean lehen mailako arloa, edo arlo estrategikoa izatea eskatzen dugu. Eta kontuan hartua izatea departamendu guztietan, jarduera ekonomiko guztiek baitute eragina Naturan.

Beraz, Gipuzkoako lurraldearen natur ondarea kontserbatzera edota berreskuratzera bideratutako plan orokorra eta zehatza eskatzen dugu.

4.2 Arlo hau kudeatzeko Foru Aldundiak beharko lukeen egitura

Egun Bioaniztasuna Landa Garapena Sailaren eskumeneko arloa da. Baina, aipatu bezala, Ingurumena eta Lurralde Antolaketa edo Mugikortasuna eta Bide Azpiegitura sailletako jarduerak bete-betean eragiten diote bioaniztasunari.

Gure ustez, hau aldatzetik hasi behar da. Uste dugu sail berri bat sortu beharko litzatekeela, BIOANIZTASUNAREN SAILA, eta honek aipatutako guztien koordinazioa gauzatu eta bideratu beharko lukeela bioaniztasunari eragiten dioten gai guztietan.

Bestetik, sail berrian edo lehendik daudenetan kokatuz, beharrezkoa ikusten dugu bioaniztasunari lotutako lanpostuak ezartzea Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak Sailean, urteetan eragindako kalteak gutxitzeko neurri zuzentzaile garrantzitsuak ezartzeko, eta orain arteko dinamika errotik aldatzeko (habitat naturalen zatikatzea, isolamendua, eta oro har, lurraldearen artifizializazioa). Hor daude, esaterako, azken sail honetatik Natura 2000 Sarean eta sare honetatik kanpo natur interes handikoak diren eremuetan egindako kalteak (Aralar-Aizkorri, Aiako Harria-Jaizkibel, Aiako Harria-Lau Haizeta Parkea, etabar).

Era berean, Sailaren eta Zuzendaritzaren helburuak argi zehaztu behar dira, dituen ardurekiko aurrekontu duina ezarriz, gaur egungoa testimoniala baita: hurrengo sei urteetan 20 milioi euro inguru inbertitu beharko dira Gipuzkoako Natura 2000 Sarean, Bruselaren eta legearen aurrean Aldundiak dituen konpromisoei erantzunez. Gaur egun agian espezie zinegetikoetan inbertsio gehiago egiten ditu Zuzendaritza honek basa-espezieetan baino; ustez ehiztarien interesei erantzuteko. Zuzendaritzaren helburu nagusiak Gipuzkoako habitat naturalen eta espezie basati guztien kontserbazio-egoera ona bermatzea izan behar du, ahalegin berezia eginez babestuta dauden edota herrialdean populazio urria duten espezieetan.

Aldundiak Bioaniztasunean dituen eskumenak eta erronkak aztertuta, zalantzarik gabe gaur egun duen lanpostu-zerrenda zaharkitua birmoldatu beharko luke (beste garaietako kudeaketa-ereduari erantzuteko egin eta egungo beharretara ez baita moldatu). Naturaren ustia ketara baino, naturaren kontserbaziora bideratutako profilak lehenetsi beharko liriateke. Mendi eta Ingurune Naturaleko Zuzendaritzak ahalegin berezia egin du urteetan zehar egur-ekoizpen komertzialari erantzuteko, eta horretarako lanpostu-profilak bideratu ditu. Egun, natur kontserbazioaren alorrean egin beharreko lanak (espezieen kudeaketa-planak, lehentasuna duten habitaten diagnostikoak, natur ingurune babestuen kudeaketa-planak etab.) kanpoko enpresei esleitu behar zaizkie, horrek suposatzen duen diru eta kontrol galerarekin.

Egun babestutako eremuen, eta horien kudeaketan parte hartzen duten eragileen arteko deskoordinazioa eta lidergo eza gainditzeko ezinbestekoa da Gipuzkoako Bioaniztasunerako Estrategia onartzea eta garatzea, aipatutako erronka guztien betetzea bermatzeko, eta parte hartze prozesuak garatzeko.

Azken honi lotuta, lehendik ere eskatu izan dugun bezala, egungo basogintzaren ereduaren eta ehizaren defentsan Foru Aldundiaren eskumenekoak diren erabakietan parte hartzen duten elkarteekiko dauden harremanak aztertzea eskatzen diogu Foru Aldundiari. Bioaniztasuna mantendu eta berreskuratzeko, natur ondarearen kontserbazioaren aldeko eragileak aintzat hartu beharko liriateke eta ez iritzi-foroetan bakarrik, baita erabakiak hartzen diren foroetan ere.

Azkenik, Udalekin koordinazioa ezartzea ere ezinbestekoa dela deritzogu, haien zerbitzuean jarritz. Asko lurjabe handiak dira, eta inoiz, ardura eta sensibilizazio handia erakutsi dute nahiz eta Aldundiaren orain arteko horma gainditzea lortu ez.

Natur ondarearen kontserbazioa ez da bermatuko gizakiaren jarduerak ingurumenean, eta beraz, naturan eragiten duela ulertu arte. Horrek bere isla izan behar du administrazioaren antolaketan.

4.3 Lurralde antolaketa: babestutako eta babestu gabeko eremuak

Bai Eusko Jaurlaritzak eta baita Foru Aldundiak ere hainbat lan egin du korridore ekologikoen gainean, baina bultzada handiagoa behar dutela uste dugu, babestutako guneen isolamenduak kezkatu egiten gaituelako biziki.

Eskatzen dugu, halaber, babestutako eremuen kudeaketaz arduratzen diren organoak, plangintzak eta jarduerak ezartzea, eta eraginkor egitea; patronatuek behar bezala lan egin dezaten neurriak hartzetik has zaitezketen.

Eta argitu itzazue, mesedez, Kontserbazio Bereziko Eremuen kudeaketan zein ardura hartuko dituen Foru Aldundiak, eta saiatu sustatzen administrazioen arteko elkarlana kudeaketa egokia lortzeko.

4.4 Babestutako espezieak eta espezie arrotz inbaditzaileak

Badakigu kontu handiz ibiltzeko moduko gaia dela, eta herritarrei eman beharreko informazioa ongi neurtu behar dela; baina badakigu, baita ere, herritarren esku dagoela neurri batean, babestutako espezieen babesa zein espezie arrotz inbaditzaileen zabaltzea edota ez-hedatzea. Horregatik eskatzen dugu herritarrei beharrezkoa den informazioa ematea. Jakina denez, Gipuzkoako lurraldearen gehiengoa jabego pribatukoa baita.

Arlo honetan egin daitekeenaren adibidea da Bizkaiko Foru Aldundiak Fauna Exotiko Inbaditzaileari buruz argitaratu berri duen liburua:

<http://isb.bizkaia.net/index.asp?idMenu=1&idMenuSiguiete=0&idioma=CA>

5. GURE ESKAEREN KRONOGRAMA

ESKAERAK	EPEA	
	3 hilabete	1 urte
Gipuzkoako natur ondarearen kontserbazio/berreskurapenerako plan orokorra	Lehenbailehen	
BIOANIZTASUNAREN SAILA birrantolatzea	Lehenbailehen	
Bioaniztasunaren kontserbazioaren arloan administrazio ezberdinek izango dituzten eskumen eta betebeharrak jasoko dituen agiria argitaratzea.		
Parke Naturaletako kudeaketa-organoen (Patronatuen?) berrantolaketa.		
Parke Naturaletako Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzaileak (PRUG) eguneratzea eta parke horietan erabilera publikoak zehaztasunez arautzea.		
Gipuzkoako korridore ekologikoen sarea planifikatzea.		
Gipuzkoan mehatxatutako espezieen informazioa herritarren esku jartzea.		
Gipuzkoan mehatxatuta dauden espezieei buruzko planen berri Foru Aldundiko baliabide digitalen plataforman modu eguneratuan eskaintzea.		
Gipuzkoan dauden espezie arrotz inbaditzaileak kontrolatu edota desagertarazteko planak egin eta jendarteratzea.		
ITSASOA: kostaldearen azterketa orokorra		